

Agurtzane Lejarzegi: "Muxikako ipuin lehiaketak hogeitaz beteko ditu"

Kultura zinegotziak azaldu bezala, "oso pozik gaude hainbeste urte daramatzagulako lanean.

ENDIKA URLEZAGA

Urtero bezala, Muxikako Udalak ipuin lehiaketa antolatu du Gabonetarako. Aurtengoa, gainera, XX. edizioa izango da. Agurtzane Lejarzegi Muxikako Kultura zinegotziak argitu bezala, "oso pozik gaude 20 urte pasa direlako eta oraindik lehiaketa antolatzen jarraitzen dugulako. Gaineratu legez, "1990ean liburutegitik atera zen ipuin lehiaketa antolatzearen ideia, eta dagoeneko urte asko igaro dira ordutik. Guretzat oso pozgarria da lehiaketak harrera ona izaten jarraitzea.

Kultura zinegotziak argitu duenez, "hasierako helburua irakurzaletasuna bultzatzea izan zen, eta gaur egun ere ildo horretatik jarraitu nahi dute. Izan ere, Muxika bezalako herri txikietan era horretako lehiaketak antolatzea idazteko eta irakurtzeko zaletasuna sustatzeko aukera oso polita dela uste dute.

Lejarzegiren hitzetan, "egia esan, ez dakit herrian zenbaterako zaletasuna dagoen, baina, gure ustez, urterik urte zaletasun hori apur bat gehiago bultzatzeko balio du lehiaketak. Azken urteetan, esaterako, jende gutxiago animatu da parte hartzera, baina normala dela dio Lejarzegik. Izan ere, garai batean ume izandakoak heldu egin direla argudiatzen du, eta horrek idazteko denbora gutxiago izatea dakar halaberrez.

Azken urteetan "45 parte-hartzaile inguru izan dituztela azaldu du eta Muxika bezalako herri batentzat "asko direla dio.

Lehiaketan parte hartzeko baldintzak

Muxikako Udal Liburutegiaren XX. Ipuin Lehiaketa lau mailatan banatu dute antolatzailleek eta maila bakoitzerako sariak prestatu dituzte. Ipuinak Zubietarrotta eraikineko liburutegian aurkeztu beharko dira, 15:30etik 20:00etara, eta azken eguna hilaren 15a izango da. Sariak, bestalde, abenduaren 22an banatuko dituzte, Urretxindorra eskolan.

Lehiaketan parte hartzeko gaia libre izango da. Lejarzegiren esanetan, gainera, "azken urteetan asko aldatu dira gaiak. Arreta deitu digun zerbait izan da hori. Tratu txarrek eta drogamenpekotasunak, esaterako, garrantzia handia dutela azaldu du zinegotziak. Azken urteetan "gai ilunak nagusitu direla uste du. Lejarzegik dioenez, "garaiak aldatzen diren bezala, idazteko gaiak ere aldatzen dira. Literaturak egunerokotasunetik edaten duela dio. Bestalde, ipuinak euskaraz idatzitakoak izan beharko dira eta, gehienez, hamar orrikoak. Kultura zinegotziak gaineratu legez, "prosaz edota bertsoz idatzitakoak izan daitezke, baina gehienbat prosaz idatzitako ipuinak jasotzen ditugu.

Parte hartzeko azken baldintza muxikarra izatea dela dio Lejarzegik. "Hasiera batean herrikoak ez zirenak ere aurkez zitezken, baina denborarekin aldatu egin dugu baldintza. Izan ere, helburua "Muxikan bertan zaletasuna bultzatzea da.

Epaimahaikideak, Jon Lopategi, Deunoro Sardui eta Kultura batzordeko kide bat izango izango dira. Azken urteetan ipuinetako gaiak aldatu direla dio Lejarzegik; "ilunagoak dira